

**ZEIN LITERATURA MOTAREKIN HEZI
DIRA GAUR EGUNGO HAURRAK?
LITERATURA ETA PREMIA BEREZIAK
UZTARTUZ.**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Aitor Aguado Garmendia.

Tutorea: Xabier Etxaniz Erle

LABURPENA

Historian zehar literaturak izan duen bilakaera begi bistakoa da eta egungo HGL-ak, duela hogeita hamar bat urtekoarekin alderatuz gero, ikuspuntu berritzaileago batzuk dituela ere badakigu. Ikuspuntu horietako bat, aniztasuna edota dibertsitate funtzionalarena izan daiteke. Hau da, zein lanketa egiten du egungo HGL-ak Hezkuntza Premia Bereziaren inguruan? Galdera honen inguruan jorratu eta aztertuko da ondorengo orrialdeetan, beharrezko liburu ezberdinen analisiak eginez. Amaieran, gaia irakaskuntza mundura gerturatzeko hausnarketa txiki bat aurkituko dugu.

RESUMEN

La evolución de la literatura a lo largo de la historia es evidente y también sabemos que la Literatura Infantil y Juvenil actual tiene puntos de vista más innovadores que la de hace unos treinta años. Uno de estos enfoques puede ser el de la diversidad funcional. Es decir, ¿cómo trata la Literatura Infantil y Juvenil actual la Necesidad Educativa Especial? Esta pregunta será tratada y analizada en las siguientes páginas, realizando los análisis de los libros que sean necesarios. Al final, encontraremos una pequeña reflexión sobre este tema que nos servirá para tener una nueva perspectiva desde el ámbito educativo.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1. or.
2. JUSTIFIKAZIO AKADEMIKO ETA PERTSONALA	2. or.
3. MARKO TEORIKOA	3. or.
Literaturaren garrantzia	3. or.
Premia bereziak dituzten ikasleak hezkuntza mailan	4. or.
Eskola inklusiboa	5. or.
Literatura hezkuntza inklusiborako bidea	6. or.
4. LANAREN HELBURU ETA HIPOTESIAK	8. or.
5. METODOLOGIA	8. or.
6. EMAITZAK	10. or.
7. HIPOTESIAK ONDORIOZTATZEN	13. or.
8. ONDORIOAK	14. or.
9. BIBLIOGRAFIA	17. or.
10. ERANSKINAK	20. or.
I. Eranskina. Liburuak aztertzeko fitxa	20. or.
II. Eranskina. Liburuen sailkapena	21. or.
III. Eranskina. Liburuen analisiak	24. or.

SARRERA

Hezkuntza Premia Bereziaren trataera Haur Literaturak aintzakotzat hartzen duen, izango da ondorengo lan honen helburua. Urte asko daramatzat hezkuntza premia bereziaren inguruko grinarekin. Aldiz, kirolak, nire beste gustuetako bat denak, graduaren azken urteko espezialitatea Gorputz Hezkuntzara bideratzea egin zidan. Baina GRALaren inguruko lana egiteko orduan, ezin nuen aukera paregabe hau galdu eta gai honetara bideratzea erabaki nuen. Gehienbat, etorkizuneko irakasle gisa nire izaera profesionala osatzen lagunduko didalako.

Lehendabizi, ikergaiaren testuingurua aurkeztuko dut, marko teoriko batean oinarrituz. Premia berezien zein literaturaren egungo egoera nolakoa den eta Haur Literaturak, hezkuntza tresna gisa, egin dezakeen ekarpenez hitz eginez. Ondoren, ikerketan erabili dudan metodologiaren azalpena eta ikerketarako erabilitako tresnen aurkezpena egingo dut. Aipatzea ere, bi azterketa ezberdin eraman ditudala aurrera; bata, zoriz hautaturiko liburu batzuekin eta, bestea, premia bereziak lantzen dituzten liburu espezifikoekin.

Amaitzeko, ikerketan ateratako ondorioez hitz egingo dut eta irakasle gisa, literatura erabiltzerako orduan, kontuan izan beharreko hainbat alderdi azalduko dizkizuet. Izan ere, Haur Literaturak bai sentibilizazioaren eta kontzientziazioaren, bai gure ikasleen nortasunaren eta identitatearen eraikuntzaren alde lagundu dezake. Hau da, norberak eta ingurukoek zer ezaugarri eta bereizgarri dituen jakitea eta gainerako pertsonetikiko diferentziak eta antzekotasunak identifikatzea.

JUSTIFIKAZIO AKADEMIKO ETA PERTSONALA

Arrazoi ezberdinengatik erabaki nuen aurrera eramatea lan hau. Arrazoi pertsonalei dagokienean, betidanik izan dut Hezkuntza Premia Bereziarekiko grina eta eremu zaila zein gogorra den arren, nire ama irakaslea izanik, Hezkuntza Premia Bereziaren kutsua transmititu dit. Egungo egoerara iristeko hainbat aurrerapen egin diren arren, oraindik ere zenbait aspektutan aldaketa batzuk eman behar direla uste dut. Hori dela eta, lan honek bezalaxe HGL-aren inguruko alderdiren baten analisia eta hausnarketa egiten duen lan oro, oso baliagarria dela iruditzen zait; batez ere, etorkizuneko irakasleak izango garenoi gure irakas profila aberasten laguntzen baitigute. Norberaren usteak alde batera utzi eta objektibotasunean oinarrituz, errealitateaz jabetzen laguntzen digutelako.

Arrazoi akademikoez hitz egitean, aurretik aipatutakoarekin lotuko nuke. Honelako lanek etorkizuneko irakasleen profila aberastu ez ezik, gizartean hain garrantzitsua den gai hau aberasten dute. Ikerketei esker, gizartearentzat mesedegarriak diren aurrerapenak egiteko baliabideak lortuko dira. Lan honi esker, gizartean bizi diren 5-12 urte bitarteko biztanleek euren eskuetan zein nolako literatura inklusibo duten jakin daiteke. Eta modu honetan, egin beharreko aldaketak edota ditugun indarguneak azalerauko dira.

MARKO TEORIKOA

Literaturaren garrantzia

Nahiz eta azken urteotan Haur eta Gazte Literaturak garrantzi handiagoa izan, betidanik izan du garrantzia honek. Literatura tradizionalaz hitz egitean, haur literatura ahozko transmisioarekin lotu izan ohi da, joko, abesti eta aho-korapiloen bitartez. Asko dira orokorrean literaturaren alde egin duten ikerlari zein idazleak. Vicente Moreno Morak (1946), adibidez, Haur Literaturak irudimenaz gain egungo hezkuntzan oso garrantzitsua den “educación de la sensibilidad” deituriko kontzeptua garatzen zuela zioen eta hori gutxi balitz ere, haurraren bizitza psikologikoaren motorra eta oinarria zela defendatzen zuen.

Baina, gaur egun idazle asko daude haur zein lehen hezkuntzako ikasgeletan liburuak egon behar direla defendatzen dutenak. M^a Carmen Morón Macíasek (2010) dio liburuek haurrei euren nortasuna garatzen laguntzen dietela, ezinbestekoak direla idatzizko komunikazioan aurrerapenak egiteko eta askotan, gizartea modu hobean ulertzen eta honetara gerturaten laguntzen dutela.

Gainera, egungo literatura garraio ideologikotzat jo izan da. Izan ere, gaur egungo gizartean tabu diren ideiak eta gai ezberdinak publikoki era natural batean tratatzeko aukera eskaintzen dute edota gizartean gertatzen diren hainbat gauza salatze erabilia izan da (Ciucci & Cinquegrani, 2014).

Aipaturikoari erreferentzia eginez, gero eta gehiago dira Haur eta Gazte Literaturak jorratzen dituen gai ezberdinak. Esaterako, azken urteotan modan jarri dira emozioak eta, irakaskuntzan bezalaxe literaturan ere, emozioetan oinarritutako liburu ugari argitaratu dira. Honen antzera, beste hainbat gai dira tabu izatetik Haur Literaturaren bitartez, naturaltasunez hitz egiteko bidea eraiki dutenak. Hala nola: gaixotasun ezberdinak (minbiziak, depresioak ...), heriotza, bortizkeria, premia bereziak ...

Premia bereziak dituzten ikasleak hezkuntza mailan

Aipatu dudan azken honen inguruan sakontzeko beharra ikusten dut. Premia bereziak dituzten pertsonak, arrazoi ezberdinak medio, bere adinari edo mailari egokitutako ikaskuntzak jasotzeko zailtasun gehiago adierazten dituzte bere parekoekin alderatzerako orduan. Honen aurrean, zailtasun horiek gainditzeko saiatzeko, laguntza espezifikoak jasotzen dituzte.

Kontzeptu hauekin lan egiteko, ezinbestekoa da ezgaitasun kontzeptuaren nondik norakoak ere kontuan izatea, batez ere, “ premia berezi” kontzeptuarekin ezberdindu ahal izateko. Lópezek eta Valenzuelak (2015) definitzen duten moduan, ezgaitasuna gorputz mailan izandako galera bat da eta alterazio fisiologiko zein egiturazko baten edota testuinguru konkretu baten (jarrera sozial, genero, hezkuntza mota ezberdinen...) ondorioz sortzen da.

Aldiz, premia bereziez hitz egitean, mota ezberdinetakoak izan daitezke. Hala nola: ezgaitasun fisiko ezberdinak, ezgaitasun mental eta kognitibo desberdinak, zentzumen ezgaitasunak, ikasketa zailtasunak, zailtasun sozialak, zailtasun emozionalak ... Hona hemen hauetako batzuen nondik norakoak:

Ezgaitasun fisiko

Ibiltzeko, objektuen manipulazioarekin, mugimendu ezberdinen koordinazioarekin ,.... zerikusia duten zailtasunak izango lirateke. Kasu batzuetan, pertsonen edota tresna zein protesi ezberdinen beharra dago eguneroko bizitzako jarduerak egin ahal izateko (Belda Martínez, 2018).

Ezgaitasun mental eta kognitibo

Eguneroko bizitzan zailtasun ezberdinak pairatzera daraman ezgaitasun mota bat da. Egoera ezberdinetan jarduteko ezinbestekoak diren gaitasun sozial eta intelektualak ikasteko zailtasun gehiago dituzten pertsonak osatuko lukete ezgaitasun mota hau. Oso gai intrapertsonala dirudien arren, pertsonen testuinguruek ere eragin handia dute ezgaitasun honetan (Verdugo Alonso, 2002).

Ikaskuntza zailtasunak

Castejón Costak eta Navas Martínezek (2011) ematen dioten definizioari jarraituz, kontzeptu honen garapenean zentratuko gara. Izan ere, ikaskuntza zailtasunak kalte neurologikotzat jo zituzten 1963 urtera arte. Urteen poderioz, XX. mendearen amaiera arte, kontzeptu horrek beste esanahi bat hartu zuen. Garuneko disfuntzioetan edota pertzepzioetako zein prozesu psikologikoetako akatsei izendatzen zitzairen modu honetan. Oraingoan bai, laguntza espezifikoko baten beharra ikusten zuten ikasketa prozesuan aurrera egin ahal izateko. Castejón Costak eta Navas Martínezek (2011) hezkuntza arazo gisa definitzen dute. Gainera, zailtasun horiei aurre egiteko egin beharreko esku-hartzeak eskola integrazioa eta curriculumaren egokitzapenak direla defendatzen dute.

Zailtasun sozialak

Gaitasun sozialak oso trebetasun garrantzitsuak dira gizakiaren egunerokoan. Izan ere, harremanak eguneroko bizitzaren oinarriak dira (Caballo, 2005). Hainbat azterlanetan adierazi da trebetasun sozial hauek eragina dutela autoestimuan, rol ezberdinen onarpenean, eskola-errendimenduan eta abarretan, bai haurtzaroan zein helduaroan (Gil Rodríguez, León Rubio eta Jarana Expósito, 1995; Kennedy, 1992; Monjas Casares, 2002; Ovejero Bernal, 1998).

Eskola inklusiboa

UNESCO-k (2005) , eskola inklusiboaren helburuetako bat ikasleen eta irakasleen erosotasunari eustea dela , adierazi zuen. Eskola inklusiboa izateko beharrezkoa da ikasleak talde baten partaide izatea eta partaide sentitzea. Gela barruan denak izatea eta denak parte hartzeko estrategiak, baliabideak,... martxan jartzea. Haur Literatura baliabide horietako bat izan daiteke. Aukera emango diguna sentimenduak eta emozioak adierazten eta bizipenak izaten eta , ondorioz, norberaren burua gero eta gehiago ezagutzen. 236/2015 dekretuak (2016) dion moduan: “Adierazpen eta bizipen horien bidez harreman eta lotura eraikitzaileak ezartzen dira beste pertsona batzuekin eta ingurunearekin, entzuteko, azalpenak emateko eta elkarriketan

aritzeko ahalmenak lantzen dira, eta komunikazio-trukerako arau eta gizarte-ohiturak betetzen ikasten da. Etapa honetan, literaturaren adierazpen xumeenak gerturatuko dizkie literatura-hezkuntzak haurrei, bizipen gozagarriak izan ditzaten, literatura-testuak entzun eta moldatuta.”

Boothek, Ainscowek eta Kingstonek (2004) diotenez, irakasleen formazioa eta agente desberdinen inplikazioa irakaskuntzan ezinbestekoak dira eskola inklusiboa lortu ahal izateko.

Literatura hezkuntza inklusiborako bidea

Amaitzeko, Haur Literaturaren zeregina eta helburu hezkuntza inklusiboa izan beharko luke. Gaur egun lortu nahi dugun inklusibitatea eskuratzeko, modu unibertsal batean ulertu beharreko aldaketa batzuk eman beharko lirateke.

Hezkuntza mailan adibidez, Carmen Alba Pastorrek (2016) dio, ikasle oro gela barruan tratatu behar dela eta normalizatuak diren uneetan hauen guztien parte hartzearen alde egin behar dugula. Unibertsalizazio honen alde egiteko, Haur Literaturako liburuak formatu desberdinetan (audioak, piktogramak, bideoak, ...) egoteak, edonori hauek ezagutzeko aukera emango lioke, irakurtzen ez dakien edota gure hizkuntza barneratzeko zailtasunak dituen bati (Haur Hezkuntzako ikasle, edozein etapako Hezkuntza Premia Bereziko ikasle, Euskal Herrira etorri berria den ikasle ,....) esate baterako.

Arestian aipaturiko unibertsalizazio hau eman dadin, beste hainbat alderdik bezalaxe, literaturak ere bere ekarpena egin dezake; are gehiago Haur eta Gazte Literaturak, etorkizuneko herritarren hezkuntzan zentratzen baita. Hauen heziketa geroz eta inklusiboa izaten, egungo bazterketen zergatiak normalizatuko baitira (Gross eta Ortiz, 1994). Izan ere, Beldak (2018) dioen bezala, hausnarketarako, enpatiaren lanketarako eta errespetua bezalako baloreen sorkuntzarako oso tresna lagungarria da. Are gehiago, Monjasek eta Gozalezek (1997) eta Blaskak (2003) elkarbanatzen diguten ideian oinarrituz, ipuin askotako pertsonaiei esker norberaren autoestimuan aldaketa ugari eman ahal dira; barnealdean, adierazteko beldurrarekin gorderik dauzkagun geure ezaugarriekin identifikatzeko gaitasuna sortu dezakeelako

literaturak. Edota, ipuina irakurri baino lehenago geure buruetan ez genituen ideia zein ezaugarri batzuk aurki ditzakegu eta horietaz hausnartzera eta aldaketa bat ematera bideratu.

Halere, guk gizarteko partaide gisa eta haur eta gazte literaturak, lanketa honetako ezinbesteko tresna bezala, oraindik asko daukagu egiteko. Horrek ez du esan nahi aurrerapenik egin ez dugunik baina, gizartea uneoro eraldatzen dago eta oraindik dibertsitate funtzionala duten pertsona ugari dago bazterturik. Honi jarraituz, Beldak (2018) gaur egun Haur Literaturan ematen den behar berezien inguruko lanketaren ondorioak aztertu zituen eta hurrengo lerroetan laburbilduko ditut:

- Gaur egungo HaurLiteratura osoak ez du aniztasun funtzionalari buruzko tratamendu zuzena egiten, liburu batzuek ez dituzte modu objektiboan eta doituan aurkezten pertsona horien errealitatea eta ezaugarriak. Aldiz, beste batzuek bai eta oso modu egokian.
- Ipuin guztiek behar dute familiartekoen edo hezitzaileen aldetik aurretiko berrikuspen bat egitea, hurrek aniztasun funtzionala duten pertsonak hobeto ezagutu eta ulertu ahal izan ditzaten. Hau da, sentsibilizazio lanketa bat.
- Aniztasun funtzionalen bati buruzko libururen bat aukeratzeko orduan, aniztasun horrekin zerikusia duen elkarteren batek gomendatzen duenean edota idazlearekin elkarlanean aritu denean erreferente ona izan daiteke. Horrez gain, erreferente izan daitezke egunerokoan honelako egoeraren bat bizi duten familien bizipenak kontuan hartzen dituzten ipuinak.

LANAREN HELBURUA ETA HIPOTESIAK

Aurretik aipatu bezala, nahiz eta zeharkako modu batean beste hainbat ondorio atera, lan honen helburu nagusia premia bereziek Haur Literaturan duten presentziaren inguruko ondorioak bilatzea izango da.

Hori lortzeko asmoarekin, lehenik eta behin, ondoren azaltzen dizkizuedan hipotesiak definitu nituen:

1. Premia bereziek ez dute presentzia handirik Haur Literaturan.
2. Hezkuntza Premia Bereziko haurrak Haur Literaturan agertzen badira ere, liburu espezifikoetan izan ohi dira.
3. Premia berezia ezgaitasun fisikoan zentratzen da ipuinetan, ezgaitasun mentalak alde batera utziz.
4. Gizartean ugariagoak diren premia bereziak, tratatzen dira gehien Haur Literaturan.
5. Liburu espezifikoetan protagonista, mendeko pertsona , ezkor zein triste gisa azaldu ohi da.
6. Premia bereziko pertsonaiak dituzten liburuek, istorio bat kontatzeaz gain hausnarketara gonbidatzen dute.
7. Premia bereziak ageri diren liburuetakoa istorioak eskola eremuan zentratzen dira.

METODOLOGIA

Ikerketa hau aurrera eramateko, behin hipotesiak zehazturik eta hauekin ikerketa fitxa bat osaturik, zoriz Haur eta Gazte Literaturako eta liburu espezifikoak diren zenbait liburu aztertu nituen. Liburuak irakurri eta bakoitzarekin fitxa bat osatu nuen. Behin guztiekin prozesu bera jarraituta, hipotesiak banan-banan zuzenak edota okerrak ziren kontrastatu nituen jasotako ondorioekin. Amaitzeko, emaitza hauek *Excel* aplikazioan sortutako grafikoaren bidez adierazi nituen.

Liburuen hautaketarekin hasi baino lehenago, hauek aztertzeko fitxa bat sortu nuen (ikus eranskina I). Bertan, lehenik eta behin liburuaren ezaugarriak biltzen dituen atala sortu nuen. Ondoren, aurretik zehazturiko hipotesiak aintzat hartuz irizpide ezberdinak ipini nituen. Formatu hau jarraitzeko ideia, Ros-Garciak (2013) eginiko ikerketatik atera nuen. Bera, psikologoa da eta ikerketa honetan Haur Literatura aztertzen du generoaren ikuspegitik. Azkenik, irizpide hauek betetzen diren ala ez adierazteko hutsuneak sortu nituen. Tresna honi esker, liburu bakoitzaren datuak bildu nituen eta ondorioak ateratzeko oso lagungarria izan zitzaidan.

Liburuak aztertzeko garaian, bi liburu mota ezberdin hautatu nituen (ikus eranskina II) eta bakoitzaren korpusa egin nuen (ikus eranskina III). Alde batetik, zoriz aukeraturiko adin ezberdinetako haurrentzako 25 liburu hautatu nituen. Hauetako batzuk Beasaingo Murumendi Eskolako liburutegikoak dira; katalogatuak zituzten irakurketa liburuetako batzuk aukeratu nituen. Besteak aldiz, Internetetik bilatutakoak; interneteko bilaketetan “Haur eta Gazte Literaturako ipuinak” bilatuz, gehien nagusitu direnak. Bestetik, 16 liburu espezifiko aztertu nituen. Gehiengoa internetetik atera nuen arren “behar bereziak lantzen dituzten Haur eta Gazte liburuak” bilatuz, gutxi batzuk ere ondoko herriko eskolan zeuden liburuak dira. Oso gutxi zituzten katalogatuak eta gutxi horiek hautatu nituen ikerketarako.


Liburu gehiengoa 2000 urtetik aurrera argitaratuak dira. Salbuespen gisa, Juan Kruz Igerabideren “*Jonas eta hozkailu beldurtia*” dago; data hori baino lehenago (1998an zehatz-mehatz) argitaratua izan zena. Irizpide honen arrazoietako bat, egungo haurren eskuetara gertuen dauden liburuak hautatu nahi nituelako da. Hau da, eskoletan zein haurren etxeetan aurki daitezkeenak. Izan ere, haurrak zein liburu irakurri eta zein liburuarekin hezi diren ikustean, literaturak zein nolako ekarpena eta trataera egiten duen ikusiko da.

Beste irizpide gisa, adin ezberdinetako liburuak hautatzea izan zen. Denak lau urtetik gorako haurrentzat diren liburuak dira; haur hezkuntzako azken urteetatik lehen hezkuntzako prozesu guztia barne hartzen dituztenak, alegia. Irizpide honen zergatia, aurretik aipatutakoaren berdina da; etorkizuneko helduek egunerokotasunean eskuetan izan ditzaketen liburuak aztertzea.


EMAITZAK.

Behin azterketa eginik, ondorengoa izango litzateke eginiko emaitzen bilketa:

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago premia bereziek ez dutela presentzia handirik Haur eta Gazte Literaturan. Izan ere, zoriz aukeraturiko HGL-ko 25 liburuetatik batean ere ez, ez da honen inguruko trataerarik egin. Aldiz, aukeraturiko 16 liburu espezifiko guztiak jarduten dute Hezkuntza Premia Bereziaren inguruko lanketan.




*** Lehenengo hipotesiaren emaitzak (%) adierazten dituen grafikoa.**




***Bigarren hipotesiaren emaitzak (%) adierazten dituen grafikoa.**

Hezkuntza Premia Berezien lanketan diharduten lan honetarako aukeraturiko HGL-ko liburuen %50a ezgaitasun mentalean zentratzen da. Aldiz, %25a fisikoan, %19a ezgaitasun sentsorialetan eta %6a komunikazio ezgaitasunean. Hori dela eta esan dezakegu alderdi mentalari uste baino gehiagoko garrantzia ematen diotela HGL-n, gehienbat ezgaitasunak arlo horretara mugatuz.

Honekin loturik, egun ugariagoak diren ezgaitasunak ezaguturik eta alderaketa eginik (hala nola, bigarren ehuneko altuenarekin ezgaitasun fisikoak eta 4. postuan mentalak daudela), esan dezakegu HGL-n gizartean ugarienak diren ezgaitasunen trataera egiten dela.



***Hirugarren hipotesiaren emaitzak (%) adierazten dituen grafikoa.**




***Laugarren hipotesiaren emaitzak (%) adierazten dituen grafikoa.**


Ezgaitasun osteoartikularra	Erregistratutako desgaitasunen laurdena baino gehiago.
Ikusmen ezgaitasuna	% 18
Entzumen ezgaitasuna	% 18
Adimen ezgaitasuna	%11
“Bestelako ezgaitasunak” (elbarritasun anizkoitzak eta beste talde batzuetan sailkatu gabeak) taldea.	%11
Erraietako (viscerales) ezgaitasuna	%7
Nerbio-sistemaren ezgaitasuna	%6
Hizkuntza ezgaitasuna	%1

*** Espainiako gabezia bakoitzaren ehunekoa adierazten duen taula.**


Liburu espezifikoen elementuen inguruko ondorioak aztertzeko garaian, lehenik eta behin protagonistaren paperarekin egiten dugu topo. Kasu honetan esan dezakegu, liburu espezifikoen %56en kasuan protagonista mendeko pertsona, ezkor zein triste gisa azaldu ohi dela. Aztertu dugun bigarren elementua, liburuen intentzionalitatea da eta ikusi dugu liburu espezifikoen %81ak istorio bat kontatzeaz gain, hausnarketara edota kontzientziatora gonbidatzen dutela. Amaitzeko, azterturiko azken elementua, lekua edota testuingurua izan da. Azterturiko liburu espezifikoen %50a eskola eremuan zentratzen da. Gainontzeko%50a, etxean edota kalean garatzen diren istorioek osatzen dute.



***Bosgarren hipotesiaren emaitzak (%) adierazten dituen grafikoa.**



***Seigarren hipotesiaren emaitzak (%) adierazten dituen grafikoa.**



***Zazpigarren hipotesiaren emaitzak (%) adierazten dituen grafikoa.**

HIPOTESIAK ONDORIOZTATZEN.

Aztertutako 25 liburuetatik liburu batean ere ez zen agertzen premia berezirik duen protagonistarik. Beraz, esan dezakegu orokorrean Haur Literaturan ez dutela presentzia handirik, lehen hipotesia baieztatzuz.

Bigarren hipotesiari dagokionean (Hezkuntza Premia Bereziko haurrak Haur Literaturan agertzen badira ere, liburu espezifikoetan izan ohi dira), aztertu dugu Hezkuntza Premia Bereziko haurrak soilik azterturiko 16 liburu espezifikoetan agertzen direla. Hori dela eta esan dezakegu bigarren hipotesia bete egin dela.

Hirugarren hipotesiari dagokionez (Premia berezia ezgaitasun fisikoan zentratzen da ipuinetan, ezgaitasun mentalak alde batera utziz) argi ikusten da mentalei garrantzia ematen zaiela. Hori dela eta esan dezakegu hipotesia okerra dela nahiz eta neurri txikiago batean, fisikoak bezalako bestelako ezgaitasunen inguruan hitz egin.

Gizartean ugariagoak diren premia bereziak ezgaitasun osteoartikularrak eta ikusmen zein entzumenezko ezgaitasunak dira %20ko portzentaiaren inguruan dutelarik. Aldiz, azterturiko liburu gehiengoak nahiz eta ez zentratu hiru ezgaitasun hauetan, gizartean gutxiengoak ez diren eta nahiko nagusitasuna duten premia berezietan zentratzen dira. Hori dela eta, laugarren hipotesia baieztatu dezakegu.

“Liburu espezifikoetan protagonista, mendeko pertsona, ezkor zein triste gisa azaldu ohi da” da bosgarren hipotesia eta azterturiko liburu espezifikoaren %56aren kasuan protagonista ahala azaldu da. Beraz, hipotesi hau baieztatu dezakegu.

Seigarren hipotesian, liburu espezifikoek istorio bat kontatzearekin batera hausnarketara gonbidatzen dutela adierazten da. Eta azterturiko liburu espezifikoaren %81ak baiezkora ematen duenez, seigarren hipotesia zuzena dela esan dezakegu.

Azkeneko hipotesiko (Premia bereziak ageri diren liburuetatiko istorioak eskola eremuan zentratzen dira) emaitzak ikusirik esan dezakegu argi ikusten dela liburu

espezifikoetako kontakizunak ez direla soilik eskola eremuetan zentratzen. Hau da, zazpigarren hipotesia ezeztatu dezakegu.

ONDORIOAK

Helburu nagusiari dagokionez, esan dezaket emaitzek uste ona berresten dutela. Haur Literaturak azken urteetan gora egin arren, horietatik liburu gutxi dira Hezkuntza Premia Berezikoari erantzuten diotenak. Haur Literaturaren zeregina eta helburua izan daiteke sentsibilizazio saioak girotzeko behar ditugun baliabidearen artean, bat izatea. Zentzu horretan, Beldak 2018an ondoriotu zuenarekin bat nator, hau da, aniztasun funtzionalen bati buruzko libururen bat aukeratzeko orduan, aniztasun horrekin zerikusia duen elkarteren batek gomendatzen duenean edota idazlearekin elkarlanean aritu denean erreferente ona izan daiteke. Horrez gain, erreferente izan daitezke egunerokoan honelako egoeraren bat bizi duten familien bizipenak kontuan hartzen dituzten ipuinak. Baina, liburu espezifiko hauen beharra ikusi arren, hauetan bakarrik islatu beharko litzateke premia berezikoaren egoera? Ez litzateke beharko premia berezikoaren presentzia Haur Literaturako edozein liburutan Carmen Alba Pastorek dion moduan, DUA (Diseño Universal para el Aprendizaje) da modua Unibertsalizazioa Hezkuntzan garatzeko. Eraikuntzan gertatu dena Hezkuntzan lortzea. Igogailuak norentzat diseinatu ziren? Gaur egun nortzuk erabiltzen ditugu? Ez ditugu bereizten: hauek ezin dutenentzat, hauek ahal dutenentzat....

Aldiz, hirugarren hipotesiaren aurkako ideia ikusi dugu. Hau da, ondoriotzat atera dezakegu premia berezi gehiengoak ezgaitasun mentalean zentratzen direla; zehatzagoak izateko, ikerketako liburuen %50a ezgaitasun mentalean zentratu da. Aldiz, kontuan izanik gizartean ugariak diren ezgaitasunen zerrendako 4. postua ezgaitasun mentalek hartzen dutela, esan dezakegu laugarren hipotesia zuzena dela. Izan ere, nahiz eta ugariak ez izan, azterturiko liburuetan lantzen diren ezgaitasunek ehuneko handia hartzen dute. Halere, ondorio gisa esan dezakegu, ezagunak ez diren edota "arrarotzat" jotzen diren ezgaitasunen inguruko trataera ez

duela egiten egungo Haur Literaturak. Ondorioz, ez daukagu hauek ezagutzeko aukerarik era natural batean.

Bosgarren hipotesiaren bidez, argi ikusten dugu ikerketa honetako liburuen %56an, behar bereziak dituzten pertsonaiak animo baxuarekin, mendeko moduan eta jarrera ezkor batekin azaltzen direla. Hau da, honelako ezgaitasun bat izatearen ondorioz, ezin zarela zoriontsu izan transmititu nahi digute liburuek? Hau erantzuten ahalegintzen da seigarren hipotesia. Izan ere, honi esker ohartu naiz liburu gehiengoek (%81ak, hain zuzen ere) hausnarketara gonbidatzen gaituztela; gehien bat kontzientziatziora eta gainontzekoen azalean jartzera. Belda-k dioen modura, pertsonaiak modu objektiboan eta doituari aurkezten dizkigutelako, beraien errealitatea eta ezaugarriak azalduz. Zoritxarrez, egungo egoeran ezinbestekoa da hausnarketa hau egitea ikusten ditugun ezberdintasun, bazterkeria edota errespetu faltan aurrean. Azkenik, zazpigarren hipotesiarekin ikus daiteke haur literaturak premia bereziaren egungo egoera pixkanaka normalizatzen laguntzen duen bezalaxe, egoera hauen ikuspuntu errealistago bat ematen ari dela; gehien bat testuinguru ezberdinetan adierazten baitira pertsonai eta egoera hauek.

Ahaztu gabe, irakasleen, hezitzaileen zein familien ezinbesteko presentzia azpimarratu nahiko nuke haur literaturarekin lanketa egiten den uneetan. Izan ere, haur literatura kontzientziazio eta enpatia lantzeko tresna egokia den arren, Belda-k esaten duen bezala, aurretikako prestaketa bat ezinbestekoa da honen ekarpena behar den bezalakoa izateko. Hori dela eta, egoera honen aurrean gizarteak aldaketa bat egin behar duela uste dut: alde batetik, herritarrok hezkuntzan inbertsioak egitearen alde egiten duten gobernuen aldeko apustua egitea. Bestetik, sistemak gure haurren hezitzaileei beharrezko baliabideak eta formakuntzak eskaintzea eta hauek familiei ezinbesteko formakuntza saioak ematea. Azkenik, familiei euren seme alaben hezkuntzan inplikazioa eskatzea.

Amaitzeko, ikerketa hau ikusirik, alde batetik esan genezake liburu aproposak zein ez hain aproposak biltzen dituela Haur Literaturak eta aurretikako prestaketa bat ezinbestekoa dela edozein kasutan. Bestetik, azken urte hauetan aurrerapenak egon direla begi bistakoa den arren, oraindik ere aldaketa gehiago eman behar direla; uneoro garapen prozesu batean baikaude.

GRALaren inguruko ondorioak

Urte dezente daramatzat hezkuntza bereziarekiko interesarekin. Horregatik, horrelako lan bat egiteak izugarri motibatu nau, eta etorkizuneko irakasle gisa ikuspegi inklusiboagoa izaten lagundu dit. Hala nola, klasean aniztasuna ematen eta berdintasuna bermatu beharrean, ekitatea bermatuz. Izan ere, irakasleok ez dugu soilik integrazioan lagundu behar, baizik eta inklusioan.

Egia esan, liburuen analisiak egiteko zailtasun ugari izan ditut; izan ere, gauden egoeran (COVID-19 gaixotasunak eragindakoa), liburu fisikoak ez izateak eta beharrezko materiala online bilatzeak asko zaildu dit lana. Hala ere, etxekoen laguntzarekin ondoko herriko liburutegiko liburuen zerrenda eskuratzeak edo bilatutako online liburutegiek asko lagundu didate.

Azkenik aipatu, gai honen inguruan nahiz eta ikerketa zein lan ugari egon, aurrerago egin nahiko nituzkeen bi ikerketa etorri zaizkit burura. Bata, liburu espezifikoek haurrengan duten eragina aztertuko lukeen ikerketa. Irakasle gisa, nire etorkizuneko ikasleekin martxan jartzeko aukera ezin hobea dut, horrela nire irakasle eredu propioa osatuz eta haurrengan Haur Literaturak sor dezakeen eragin aproposena sortuz. Bestea, haur literatura genero ikuspuntutik aztertuko lukeen ikerketa bat egitea. Izan ere, nahiz eta azken urteetan genero aldetik aurrerapen ugari egon, oraindik ere uste dut literaturan aldaketa ugari eman beharko lirakeela. Eta nola ez, Haur eta Gazte Literaturan, behin eta berriz aipatu bezala, etorkizuneko helduak hezteko tresna baita.

BIBLIOGRAFIA

[237/2015 Dekretua](#), abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (EHAA, 2016-01-15).

[236/2015 Dekretua](#), abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (EHAA, 2016-01-15).

Belda Martinez, D. (2018). *La Literatura Infantil Como Recurso Educativo En La Escuela Inclusiva: Voces De Las Familias De Niños Y Niñas Con Diversidad Funcional* (Tesi doktoral). Alicante: Universidad de Alicante.

Betina-Lacunza, A. eta Contini de González, N. (2011). *Las habilidades sociales en niños y adolescentes. Su importancia en la prevención de trastornos psicopatológicos. Fundamentos en Humanidades*. Argentina: Universidad Nacional de San Luis.

Blaska, J. K. (2003). *Children's Literature That Includes Characters With Disabilities or Illnesses*. Nueva York: Educator's International Press, Inc.

Booth, T., Ainscow, M. eta Kingston, D. (2004): *The Index for Inclusion, Developing Play Learning and Participation in Early Years and Child care*. Bristol: CSIE.

Caballo, V. (2005). *Manual de Evaluación y entrenamiento de las habilidades sociales*. Madrid: Siglo XXI.

Carandell, J.M. (1976): La literatura infantil. *Camp del'arpa*, 34: 19-42.

Pastor, C.A. [Berritzegune Nagusia] (2016). *Carmen Alba introduce el DUA*. [Bideoa]. Youtube. https://www.youtube.com/watch?v=yaKdAsx_cic

Castejón-Costa, J. L., eta Navas Martínez, L. (2011). *Dificultades y trastornos del aprendizaje y del desarrollo en infantil y primaria*. Alicante: Editorial Club Universitario.

- Ciucci, A. S., eta Cinquegrani, M. I. (2014). *Recordar, recordar: El rol de la literatura infantil o juvenil en la conservación de la memoria y la denuncia social*. <http://sedici.unlp.edu.ar/handle/10915/48075>
- Gil-Rodríguez, F., León-Rubio, J. eta Jarana Expósito, L. (Eds) (1995). *Habilidades sociales y salud*. Madrid: Pirámide.
- Gross, A.L. eta Ortiz, L.A.W. (1994). Using Children's Literature to Facilitate Inclusion in Kindergarten and Primary Grades. *Young Children*, 49, 32-35.
- Jiménez-Lara, A. eta Huete-García, A. (2002). *La discapacidad en cifras*. Madrid: Ministerio de trabajo y asuntos sociales. Secretaría General de Asuntos Sociales. Instituto de Migraciones y Servicios Sociales.
- Kennedy, J. (1992). Relations hipo maternal beliefs and childrearing strategies to social competence in preschool children. *Child Study Journal*, 22, (1), 39-61.
- López, I. M., eta Valenzuela, G. E. (2015). *Niños y adolescentes con necesidades educativas especiales*. <https://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0716864015000085#!>
- Monjas-Casares, M. (2002). *Programa de enseñanza de habilidades de interacción social (PEHIS) para niños y niñas en edad escolar*. Madrid: CEPE.
- Monjas, M. I. eta González, M. T. (1997). La literatura infantil y juvenil: un potencial recurso para el acercamiento a las personas con discapacidad. *Siglocero*, 28. *Bol.174 (6)*. zbk. 41-46 or.
- Moreno-Mora, Vicente (1946). *Literatura infantil*. Colegio Normal Manuel J. Calle. Cuenca. 143 p. <http://repositorio.casadelacultura.gob.ec/handle/34000/1419>
- Morón-Macías, M. C. (2010). *Los beneficios de la literatura infantil*. <https://www.feandalucia.ccoo.es/andalucia/docu/p5sd7247.pdf>
- Ovejero-Bernal, A. (1998). Las habilidades sociales y su entrenamiento en el ámbito escolar. En F. Gil y J. León (comp.) *Habilidades sociales. Teoría, investigación e intervención*. Madrid: Síntesis Psicológica. (169-185 or.).

- Rico, M.D. (1986). *Castillos de arena: ensayo sobre literatura infantil*. Madrid: Alhambra.
- Ros-García, E. (2013). *El cuento infantil como herramienta socializadora de género*. Sevilla: Secretariado de publicaciones universidad de Sevilla. Cuestiones Pedagógicas.
- UNESCO. (2005). *Educación para todos. El imperativo de la calidad. Informe de Seguimiento de la EPT en el Mundo*. París: UNESCO.
- Verdugo-Alonso, M. Á. (2002). *Análisis de la definición de discapacidad intelectual de la Asociación Americana sobre Retraso Mental*. Plena inclusión. <https://www.plenainclusion.org/discapacidad-intelectual>

ERANSKINAK

ERANSKINA I: Liburuak aztertzeko fitxa.

LIBURUAREN IZENBURUA: EGILEA: ARGITALETXEA: URTEA: ADINA:		
HIPOTESIAK	BAI	EZ
<i>Hipotesia 1</i> Premia berezirik jorratzen da?		
<i>Hipotesia 2</i> Jorratzen bada, liburu espezifikoa al da?		
<i>Hipotesia 3</i> Premia berezia ezgaitasun fisikoan zentratzen da?		
<i>Hipotesia 4</i> Egungo gizartean nagusia den ezgaitasuna da?		
<i>Hipotesia 5</i> Mendeko pertsonaia, animo baxukoa, ezkorra da? Hala ez bada, nolakoa da?		
<i>Hipotesia 6</i> Hausnarketara gonbidatzen gaitu liburuak? Zeri buruz?		
<i>Hipotesia 7</i> Eskola eremuan kokatzen da istorioa? Hala ez bada, non?		

ERANSKINA II: Liburuen sailkapena

Liburu espezifikoak

Aliaga, R. (2011): *Superhéroes*. Madril: Anaya

Berettoni-Carrara, M. (2010): *Sara, nor zara?*. Iruñea: Kalandraka-Pamiela

Calleja, S. (2002): *Dado iratxoa*. Donostia: Elkar

Carrier, I. (2009): *El cazo de Lorenzo*. Bartzelona: Juventud

García de Motilola, A. (2015): *Zesar eta mahai-futbol magikoa*. Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Gómez-Cerdá, A. (2001): *Alejandro no seré*. Madril: Anaya

Grejniec, M. (2004): *Nola dastatu ilargia*. Iruñea: Kalandraka-Pamiela

Lang, N. (2012): *Downtown*. Madril: Dibbuks

Lertxundi, A. (2000): *Nik erremerre egiten dut, eta zer?*. Donostia: Elkar

Linazasoro, K. (2008): *Etzi*. Donostia: Elkar

M Szabo, E. (2016): *Mira, ¡puedo hablar con los dedos!*. Erresuma Batuak: Golden Box Bookspublishing

Pérez-Escrivá, V. (2009): *Cierra los ojos*. Bartzelona: Thule

Riba, C. (2014): *Quisieras un coche. La silla de ruedas*. Bartzelona: Salvatella

Sierra i Fabra, J. (2003): *Berezia naiz lagunentzat*. Sondika: Giltza

Torras, M. (2001): *Nire arreba Aixa*. Donostia: Elkarlanean

Zubizarreta, P. (2006): *Arroza eta tinta*. Donostia: Erein

Zoriz aukeraturiko liburuak

Abeyá, E. (2007): *Sorgin bat bizikletan*. Donostia: Elkar

Aguilar, L. (2008): *Tximeleta belarriak*. Iruñea: Kalandraka-Pamiela

Añorga, P. (2013): *Zapatagorri*. Berriozar: Denonartean

Ballesteros, X. (2000): *Zazpi antxumeak*. Iruñea: Kalandraka-Pamiela

